

## XVIII. mendeko aditz taula batzuk: Joanes Erauskinen eskuizkribua

Ricardo Gómez-López

UPV/EHU

### **Laburpena**

*Artikulu honetan gaur arte argitaratu gabe egon den eskuizkribu bat eza-gutzera eman nahi dut, ene ustez Joanes Erauskin apaiz gipuzkoarrak (1681-1752) idatzia, dirudienez XVIII. mendearen erdialdean. Eskuizkribuak euskarazko eta gaztelaniazko hainbat aditz taula ditu, Juan Luis de la Cerdaren De institutione grammatica latin-gaztelania lanaren eredu gramatikografikoari jarraiki. Hurrengo orrialdeetan, eskuizkribuaz dakiguna eta testuaren edizioa aurkeztuko ditut, hala nola haren hizkuntz ezaugarri interesgarrienak gaingiroki aipatuko.*

### **0. Sarrera\***

Eusko Jaurlaritzak 2012ko apirilean *Dokuklik* web ataria<sup>1</sup> abiarazi zuenetik ez gara gutxi izan haren bilaketa tresna erabili dugunok euskarazko testu ezezagun edota ahaztuen bila. Haietako bat da Ibon Sarasola irakaslearen omenez lan honetan aurkeztu nahi dudana: Joanes Erauskinen XVIII. mendearen erdialdean idatzi bide zituen aditz taula elebidunak (euskara-gaztelania). Artikulu honi ezarritako mugak ez gaingintzearen, hurrengo orrialdeetan eskuizkribuaren aurkezpena eta haren edizioa eskainiko ditut, azterketa sako-nago bat hurrengo lan baterako utziz.

---

\* Artikulu honek hurrengo proiektuen laguntza izan du: «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (Espainiako MINECO, FFI2012-37696), «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT698-13) eta «Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara» (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14). Nire esker ona adierazi nahi diot Borja Aginagalderi, Euskadiko Artxibo Historikoaren zuzendariari, eskuizkribuaren gaineko datu batzuk lortzen emandako laguntzagatik.

<sup>1</sup> <http://dokuklik.snae.org/>.

## 1. Eskuizkribuaz dakiguna

Aurkeztu nahi dudan eskuizkribua gaur egun Euskadiko Artxibo Historikoan gordeta dago, Urreta-Garay artxibo-funtsaren barruan,<sup>2</sup> eta haren bertsio digitalizatua *Dokuklik* web atarian dugu eskura.<sup>3</sup>

Eskuizkribuak bi zati ditu. Lehenengo zatia koaderno bat da, 18 orrialde ditu, zenbakitu gabe eta gehienak bi aldeetatik idatziak: 1v, 2v eta 9v orrialdeak idatzi gabe daude; lehenengo orrialdean (1r) izenburu gisako testu hau dator: «Razones tocantes a la obra pía de los | estudiantes por Carrera, se allarán | aquí».<sup>4</sup> Eskuizkribuaren bigarren zatia behin tolestutako plegu bat da, eta lau orrialdeak idatziak eta zenbakitu gabe daude.

Eskuizkribuak ez du egilearen izenik, baina *Dokuklike*ko deskribapenak Joanes Erauskin Albizturko benefiziadua idatzi zuela diosku:

cr. 1750 Razones tocantes a la obra pía de estudiantes, fundada por el capitán D. Domingo de Carrera. Al reverso incluye 14 fols. en euskera sobre conjugacion del verbo. De mano de Juan de Erausquin, Benef. de Albiztur (m. 1752).

Joanes Erauskin Carrera Albizturren sortu zen eta 1681eko urriaren 27an bataiatu zuten. Aita Bartolome Erauskin eta ama Agustina Carrera Alegian ezkondu ziren 1680ko otsailaren 11n eta beste hiru seme-alaba izan zituzten: Antonia (j. 1684), Joan Bautista (j. 1688) eta Ignacio (j. 1692). Dena dela, bataioen agirietan lau seme-alabak agertzen badira ere, Joan Bautistak presatatu zituen zuhaitz genealogikoetan bera eta Joanes baino ez dira agertzen.<sup>5</sup> Zuhaitz genealogiko horiei esker jakin dezakegu Domingo Carrera kapitaina Joanesen osaba zaharra zela, kapitaina Joanesen aitona anai baitzen. Joanes Erauskin presbitero eta benefiziadua izan zen Albizturren, bertan 1752ko martxoaren 8an hil zen arte.

Hala eta guztiz ere, eskuizkribuaren egiletasunaren arazoa ez da hain erraza eta esku bat baino gehiago egon litezke, edo zati guztiak esku berekoak izan. Izan ere, eskuizkribuaren izenburuak iragartzen duen gaia 2r orrialdean baino ez da erabiltzen, bertan azaltzen baitira Carrera kapi-

<sup>2</sup> Hauxe da eskuizkribuaren erreferentzia: Urreta-Garay artxiboa. Urreta-Erauscain. Bolu-  
mena: 12. Paper sorta: 13.

<sup>3</sup> [http://dokuklik.snae.org/badator\\_sencilla\\_result\\_registro.php?idreg=20129](http://dokuklik.snae.org/badator_sencilla_result_registro.php?idreg=20129).

<sup>4</sup> Domingo Carrera kapitaina Perun bizi zen; 1663an indioen matxinada bat baketzea lortu zuelako eman zioten kapitain gradua, besteak beste (Pereyña Plasencia 1984: 220). Carrerak Alegian sortu zuen errukizko obra bat, bere ahaideek nahi zuten karrera ikas zezaten Salamancako Unibertsitatean. Halaxe azaltzen du 1733ko eskuizkribu batek: «a la memoria fue dada por el Capitán Don Domingo de Carrera para estudiantes parientes suos para que pudieren estudiar la Facultad que quissiesen en la Unibersidad de Salamanca» (Urreta-Garay artxiboa, Urreta-Erauscain. 4. boluena, 23. paper sorta).

<sup>5</sup> *Arboles genealógicos de D. Juan Bautista de Erausquin con D. Domingo de Carrera*, Urreta-Garay artxiboa, Urreta-Erauscain. 4. boluena, 14. paper sorta.

tainaren obrarekin lotutako kontu eta zor batzuk. Koadernoaren gainerako orrialdeak euskal aditzari buruzko testuak betetzen ditu (3r-9r) eta beste esku batekoak dirudite; testu honek letrakera irregular eta aski zabarra du, eta zuzenketa nahikotxo ditu. Aldiz, orri tolestuan (10r-11r) letra argiago eta zainduagoa aurkitzen dugu, zuzenketa franko badira ere; hiru orrialde horietan *izan* aditzaren taulak errepikatzen dira, baina aurrekoekiko zenbait aldaera interesgarri izanik; hots, ez dirudi «garbira pasatze» hutsa denik. Azken orrialde idatzian (11v) Joan Bautista anaiaren testamentuari buruzko testu bat dago, hau ziurtasun osoz Joanes Erauskinen idatzia.

Gauzak horrela, oso litekeena da orri tolestu osoa Joanes Erauskinen eskukoa izatea. Zailagoa iruditzen zait —baina inola ere ezinezkoa— lehenengo koadernoko testua ere esku berekoa izatea; ez da ezinezkoa, diot, koadernokoa idazkera lasterrago eta arduragabeagoari legokiokeelako, eta orri tolestukoa, aldiz, idazkera zainduagoari. Horrenbestez, eta azterketa sakonago baten zain, eskuizkribu osoaren egilea Joanes Erauskin izan zelako hipotesia onartuko dut.

## 2. Eskuizkribuaren interesa

Artikulu honen tamainak ez dit aukerarik ematen eskuizkribuaren azterketa oso eta sakona egiteko. Hortaz, hurrengo lan baterako geratuko da egin-kizun hori eta oraingoan eskuizkribuaren interesa azpimarratzeko zenbait ezaugarri azaldu besterik ez dut egingo.

Lehenik eta behin, XVIII. mendeko euskal aditzaren taula batzuk dira eta, ordu arteko euskal gramatika-lanak hain gutxi izanik (cf. Gómez 2008), agertzen den beste edozeinek beti izango du berezko interesa. Laburragoak edo luzeagoak izan, zehatzak edo hala-holakoak, egia da XVII-XVIII. mendeetako euskal gramatika-lan guztietan, ezagunetan bederen, aditz taulak edo adizkien zerrendak sartzen direla: beren garaietan inprimatu ziren Voltaire, Oihenart, Larramendi eta Harrieten gramatika-lanetan; beranduago argitaratutako Mikoleta, Sarako Etxeberri eta Urterenetan, eta baita oraindik argitaratu gabeko Lubietarenean ere. Baina, esan bezala, ez dira asko eta, zernahi gisaz, aipagarria da Larramendiren gramatikaz geroztik Hego Euskal Herrian XVIII. mende osoan ez genuela halako aditz taula gehiagorik ezagutzen.

Ezbairik gabe, Erauskinen aditz taulen eredu Juan Luis de la Cerdak (1601) berritu zuen Nebrixaren latin gramatikaren tradizio luzean bilatu behar dugu. De la Cerdaren *De institutione grammatica*, *Arte regia* edo *Arte reformado* izenekin ezagutzen dugun gramatika Gaztelako erresuman latina irakasteko baimena zuen testu bakarra izan zen, 1601eko uztailaren 28ko erret zedula aldarrikatu zenetik (Martínez Gavilán 2008: 202). Orduz geroztik, Nebrixaren gramatika berritua —de la Cerdaren bertsioa izan edo beste berritze bat izan— hainbat aldiz berrargitaratu zen, batik bat Madrilen eta Katalunian. Haatik, XVIII. mendearen lehen erdian berrargitalpen ia guztiak

Katalunian inprimatutako latin-katalan gramatikak dira (ik. Esparza & Niederehe 1999: 304). Esparza eta Niederehek (1999: 214) XVIII. mendean Madrilen ateratako bakar bat ematen dute (ex typog. apud Haeredes Viudae Joan. Garcia Infanzon, 1735), eta nik haien bibliografian agertzen ez den beste bat aurkitu dut (Ex Typog. Haeredis Ioann. Garcia Infanzon, 1749). Azken hau erabiliko dut Joanes Erauskinen eskuizkribuarekin erkatzeko. Beheko taulan, erakusgarri gisa, aurrez aurre jarri ditut bi lanetan agertzen diren *amatu/amar* aditzaren era aktiboko modu eta denboren sailkapenak:

De la Cerda (1749: 26-30)	Erauskin (c. 1750: [6r]-[8r])
INDICATIVO	MODO INDICATIVO
Tiempo presente Pretérito imperfecto Pretérito perfecto Pretérito plusquam perfecto Futuro imperfecto Futuro perfecto	Tiempo presente Pretérito inperfecto Pretérito perfecto Pretérito plus quan perfecto Futuro inperfecto Futuro perfecto
IMPERATIVO	
Presente y futuro	
OPTATIVO O SUBJUNTIVO	TIEMPOS DE SUBYENTIVO
Tiempo presente Pretérito imperfecto Pretérito perfecto Pretérito plusquam perfecto Futuro de subjuntivo	Tiempo presente Tiempo de pretérito imperfecto Tiempo de pretérito perfecto Tiempo de pretérito plus quan perfecto Tiempo de futuro perp[e]cto
	MODO INPERATIVO
	Presente y futuro
INFINITIVO	MODO INFINITIVO
Presente e imperfecto Pretérito perfecto y plusquam perfecto Futuro de infinitivo Circumloquio segundo Los gerundios substantivos Supino Participio de presente e imperfecto Participio de futuro en <i>-rus</i>	Presente e inperfecto Pretérito perp[e]cto y plus quan perfecto Futuro de infinitivo Circunloquio segundo Gerundios substantivos  Participio de presente e inperp[e]cto Participio de futuro en <i>-rus</i>

Esan bezala, beste lan batean Erauskinen eskuizkribuko euskararen eta erdararen azterketa zehatzagoa eskaintzeko asmoa dut; zilegi bekita, hala ere, oraingo honetan zertzelada batzuk aurreratzea. Euskarari dagokionez, segur

aski, ezaugarri deigarriena 2. pertsona pluraleko adizkiak, ia salbuespenik gabe, *zu-ri* dagozkionak izatea da: 4r *zuec cera*, *zuec ciñan*, 6r *zuec amatcen dezu*, etab.<sup>6</sup> Beste alde batetik, ikuspuntu historiografikotik, aipagarria deritzot 3. pertsonaren izenordainetarako sing. *bestea* ‘aque!l’ eta pl. *besteak* ‘aque!llos’ erabiltzeari; izan ere, nik dakidala, euskal gramatika zaharretan kasu bakarra litzateke.

Gaztelaniari dagokionez, ordea, erabilera arkaikoak (ia beti *nos otros*, *vos otros* idaztea, kasu) eta forma dialektal bereziak (adib., geroaldiko 4v *se-ramos*, *seráis*) kausitzen ditugu. Gramatika terminoen aldaera bitxi batzuk ere badira: *perpectoa/perpecto*, *subyentivoa/subyentivo*. Azkenik, bai euskarazko paradigmatan eta baita erdarazkoetan ere, sarri zenbait pertsonaren aditz denbora aldatzen du egileak, ziurrenik oharkabean. Hona adibide bana: euskaraz, 5r *ni izen nindilla*, *zu izen ci[n]decela*, *bestea izen didilla*; erdaraz, 4r *yo era*, *tú eras*, *aque!l es*.

### 3. Edizioaren irizpideak

Ez dut transkribapen paleografikoa aurkeztu nahi izan, irakurle interesatuak sarean aski ongi irakurtzen den faksimilea baitauka eskura. Aitzitik, eskuizkribuaren aurkezpen kritikora hurbiltzeko asmoa izan dut, testuaren irakurketa eta azterketa linguistikoa erraztu nahian. Helburu hori gogoan, letra larri eta xeheen erabilera eguneratu dut, gaztelaniatzko pasarteetan azentu grafikoak sartu ditut eta testuko puntuazioa gaurko usadioen arabera ezarri dut; hala ere, gaur egun egokiak ez diren, baina eskuizkribuan sistematikoak diren, zenbait koma gorde ditut. Hitz banaketa eguneratzea hobetsi dut, alde batetik, eskuizkribuan ez delako beti erraza hitzen banaketa zein den asmatzea; bestetik, hitzen bereizketa aski irregularra dirudielako, perifrasietakoa aditz nagusia eta laguntzailea noiz lotuta noiz banatuta agertzen baitira, esate baterako. Alabaina, eskuizkribuan beti, edo ia beti, gaurko usadioaren kontra agertzen direnak bere horretan utzi ditut: *nos otros*, *vos otros*, *plus quan perpecto*. Laburdurak osatu eta oharretan adierazi ditut, salbuespen birekin: *perpecto* eta *imperpecto/imperpecto* hitzak ia beti laburtuta agertzen dira; gehienetan *perp.*<sup>10</sup>, *inperp.*<sup>10</sup> eta behin *imp.*<sup>10</sup>. Horiek guztiak ez ditut oharretan jaso, ezta gaztelaniatzko *que*-ren laburdura ere.

Grafiaz denaz bezainbatean, testuaren irakurketa errazteko ezinbesteko aldaketak egiten saiatu naiz. Hala, eskuizkribuan maiz erabiltzen den <u> kontsonantikoa <v> letraldatu dut eta, halaber, oso bakanka agertzen den <Y> larria <I> eman ere. Zenbait grafema zuzendu eta zuzenketak oharretan azaldu ditut: <c> *pro* <ç>, <n> *pro* <ñ> eta <r> *pro* <rr>. Testuan falta diren

<sup>6</sup> Salbuespen bakanak gehienbat aginteran daude: 5r *zu izen zaite* / *zuec izen çaitez*, 5v *izen zaite zu* / *izen zaitez zuec*, 7v *zuc amatu bacendu* / *zuec amatu bacendue*, 11r *icen zaite zu* / *icen zaitez zuec*.

letrak kako zuzenen artean agerrarazi ditut. Gainerako zuzenketak eta eskuiz-kribuari buruzko bestelako azalpenak oharretan eman ditut.

#### 4. Testua

[f.3r]

[gurutzea]

1 Izceguiteco bear dan moduan necesitacen dira jaquitea vost gauza, ceñac diran moduac, temporac, casoac, numeroac eta generoac. Para ablar bien se necesitan saber los modos, tiempos, casos, números y géneros.

2 Moduac dira lau: indicatiboa, subyentiboa, imperatiboa eta infinitiboa. Los modos son quatro: indicativo, subyentivo, imperativo y infinitivo.

3 Temporac dira sei: presentea, preterito imperp[e]ctoa, preterito perpectoa,<sup>7</sup> preterito plus quan perpectoa, futuro imperp[e]ctoa eta futuro perpectoa. Los tiempos son seis:<sup>8</sup> presente, pretérito inperpecto, futuro inperpecto<sup>9</sup> y futuro perpecto.

4 Casoac dira sei: nominatiboa, genetiboa, datiboa, acusatiboa, vocatiboa eta ablatiboa. Los casos son seis: nominativo, genetivo, dativo, acusativo, vocativo y ablativo.

[f.3v]

[gurutzea]

5 Numeroac dira bi, deriztenac vacarra<sup>10</sup> eta asco. Vacarrac<sup>11</sup> izceguiten du vaten gaiñean eta ascoc izeguiten du ascoren gaiñean. Los números son dos: singular y plural. El singular habla sobre uno solo; y el plural habla sobre muchos.

6 Generoac dira iru: masculinoa, femeninoa eta neutroa. Masculinoac comprendizen ditu gauza ar guciac; femeninoac comprendizen ditu gauza eme guziac, eta neutroac ez arrac<sup>12</sup> eta ez emeac diranac.

Los géneros son tres: masculino, femenino y neutro. El masculino conp[r]ende todo género de macho; el femenino comprende todo género de embra, y el neutro comprende de las cosas que no tienen distención de masculino y de femenino.

Jaqu[i]narequin principio oec ondo, jaquingo da gañeracoa<sup>13</sup> obeto. Sabiendo estos principios bien, se sabrá mejor lo demás.<sup>14</sup>

<sup>7</sup> perpectoa] bigarren -e- lerroartean erantsi du.

<sup>8</sup> Bistan da, jarraian lau denbora baino ez ditu aipatu, «pretérito perpecto» eta «pretérito plus quan perpecto» ahazturik.

<sup>9</sup> inperpectoa] bigarren -e- lerroartean erantsi du.

<sup>10</sup> vacarra] esk. *Vacara*.

<sup>11</sup> Vacarrac] esk. *Vacarac*.

<sup>12</sup> arrac] esk. *arac*.

<sup>13</sup> gañeracoa] esk. *ganeracoa*.

<sup>14</sup> principios ... demás] orrialdearen eskuineko ertzean idatzia, goitik behera.

## [f.4r] TIEMPOS DE INDICATIVO

*Presente*

Ni naiz	Yo soi
Zu cera	Tú eres
Bestea da	Aquel es
Gu guera	Nos otros somos
Zuec cera	Vos otros sois
Besteac dira	Aquellos so[n]

*Pretérito imperfecto*

Ni nincen	Yo era
Zu ciñen	Tú eras
Bestea zan	Aquel es
Gu guiñan	Nos otros éramos
Zuec ciñan	Vos otros erais
Besteac ciran <sup>15</sup>	Aquel[l]os eran

*Pretérito perfecto*

Ni izan naiz	Yo fui, o he sido
Zu izen zera	Tú fuiste, o has sido
Bestea izan da	Aquel fue, o ha sido
Gu izen guera	Nos otros fuimos, o emos sido <sup>16</sup>
Zuec izan zera	Vos otros fuisteis, <sup>17</sup> o abéis sido <sup>18</sup>
Besteac izen dira	Aquellos fueron, o an sido

[f.4v] *Pretérito plus quam perfecto*

Ni izan ninzan	Yo avía, sido
Zu izan ziñan	Tú avías, sido
Bestea izan zan	Aquel avía, sido
Gu izan guiñan <sup>19</sup>	Nos otros avíamos, sido
Zuec izan ziñan	Vos otros avíais, sido
Besteac izan ziran	Aquellos avían, sido

<sup>15</sup> ciran] *c-* letra *d-* baten gainean idatzia.<sup>16</sup> sido] lerroartean idatzia.<sup>17</sup> fuisteis,] esk. *fuis,teis*.<sup>18</sup> sido] lerroartean idatzia; lerroan *sid* ta-  
txatua.<sup>19</sup> guiñan] esk. *guinan*.*Futuro imperfecto*

Ni izengo naiz	Yo, seré
Zu izengo zera	Tú, serás
Beste[a] izengo da	Aquel, será
Gu izen[go] guera	Nos otros, seramos
Zuec izengo cera	Vos otros, seráis
Besteac izengo dira	Aquellos, serán

*Futuro perfecto*

Ni izengo ninzen	Yo habrá sido
Zu izengo ziñen	Tú habrás sido
Bestea <sup>20</sup> izengo zan	Aquel habrá sido
Gu ize[n]go guiñen	Nos otros habramos <sup>21</sup> sido
Zuec izengo ziñen	Vos otros habráis sido
Besteac izengo ciren	Aquellos habrán sido

## [f.5r] TIEMPOS DE SUBYUNTIVO

*[Presente]*

Ni icen narin	Yo sea
Zu izen zaite	Tú seas
Bestea izen bidi	Aquel sea
Gu izen gaitean	Nos otros seamos
Zuec izen çaitetz <sup>22</sup>	Vos otros sois
Besteac izen biteç <sup>23</sup>	Aquellos sean

*Pretérito imperfecto*

Ni baninz	Yo fuera
Zu baciñe <sup>24</sup>	Tú fueras
Bestea baliz	Aquel fuera
Gu baguiñe <sup>25</sup>	Nos otros fuéramos
Zuec baciñe <sup>26</sup>	Vos otros fuerais <sup>27</sup>
Besteac balida	Aquellos fueran

<sup>20</sup> Beste[a] *B-* letra *G-* baten gainean ida-  
tzia.<sup>21</sup> habramos] *-b-* letra lerroartean erantsia.<sup>22</sup> izen çaitetz] esk. *izençaitetz*.<sup>23</sup> izen biteç] esk. *izenbitec*.<sup>24</sup> baciñe] esk. *bacine*.<sup>25</sup> baguiñe] esk. *baguine*.<sup>26</sup> baciñe] esk. *bacine*.<sup>27</sup> fuerais] *-i-* beste letra baten gainean  
idatzia.

*Pretérito perfecto*

Ni izen nindilla	Yo aia sido
Zu izen ci[n]decela	Tú aias sido
Bestea izen didilla	Aquel aia sido
Gu izen guindecela	Nos otros avimos sido
Zuec izen cindecela	Vos otros avíais sido
Besteac izen citecela	Aquellos aian sido

*Pretérito plus quan perfecto*

Ni izen baniz	Yo huviera sido
Zu izen baciñe <sup>28</sup>	Tú huvieras sido
Bestea izen baliz	Aquel huvera sido
Gu izen baguiñe	Nos otros huvéramos sido <sup>29</sup>
Zuec izen baciñe	Vos otros havíais sido
Besteac izen balire	Aquellos havian sido

[f.5v] *Futuro perfecto*

Ni izengo baninz	Yo fuere
Zu izengo baciñe	Tú fueres
Bestea izengo baliz	Aqu[e]l fuere
Gu izengo baguiñe <sup>30</sup>	Nos otros fuéremos
Zuec izengo baciñe <sup>31</sup>	Vos otros fuereis
Besteac izengo balida	Aquellos fueron

*Imperativo*

Izen zaitte zu	Sé tú
Izen bidi bestea	Sea aquel
Izen zaittez zuec	Sed vos otros
Izen vitez besteac	Sean aquellos

## INFINITIVO

*Presente e imperfecto*

Izcen	Ser
-------	-----

*Pretérito y plus quan perfecto*

Izen da, ero izen zan	Aver sido
-----------------------	-----------

*Futuro de infinitivo*

Bear du izendu	(Aver de ser) aver sido
----------------	-------------------------

<sup>28</sup> baciñe] esk. *bacine*.<sup>29</sup> sido] lerroartean idatzia.<sup>30</sup> baguiñe] esk. *baguine*.<sup>31</sup> baciñe] esk. *bacine*.*Circunloquio*

Ceña izatera, o izendu baliz	Si fuera, o huvira de [ser]
------------------------------	-----------------------------

*Participio de futuro en -rus*

Gauza bear doana izen	Cosa que ha, o tiene de ser
-----------------------	-----------------------------

## [f.6r] VERBOAC - VERBOS

## MODO INDICATIVO

*Tiempo presente*

Nic amacen det	Yo amo
Zuc amacen dezu	Tú amas
Besteac amazen du	Aquel ama
Guc amacen degu	Nos otros amamos
Zuec amacen dezu	Vos otros amáis
Besteac amacen due	Aquellos aman

*Pretérito imperfecto*<sup>32</sup>

Nic amacen nuan	Yo amaba
Zuc amacen cenduan	Tú amabas
Besteac <sup>33</sup> amacen zuan	Aquel amaba
Guc amacen guenduan	Nos otros amábamos
Zuec amacen cenduan	Vos otros amabais
Besteac amacen zuen	Aquellos amaban

*Pretérito perfecto*

Nic amatu det	Yo amé
Zuc amatu dezu	Tú amaste
Besteac amacen du	Aquel amó
Guc amacen <sup>34</sup> degu	Nos otros amamos
Zuec amacen dezu	Vos otros amasteis
Besteac amacen due	Aquellos amaron

[f.6v] *Pretérito plus quan perfecto*

Nic amatu nuan	Yo avía amado
Zuc amatu cenduan	Tú avías amado
Besteac amatu zuan	Aquel avía amado

<sup>32</sup> imperfecto] *in-* lerroartean erantsia.<sup>33</sup> Besteac] *-c* ez da ikusten, zirriborro batek estaltzen baitu.<sup>34</sup> amacen] *-cen* ez da ondo ikusten, zirriborro batek estaltzen baitu.



Guc amatu guenduan	Nos otros avíamos sido
Zu[e]c amatu cenduan	Vos otros avíais sido
Besteac amatu zuen	Aquello[s] avían sido

*Futuro imperfecto*

Nic amatuco det	Yo amaré
Zuc amatuco dezu	Tú amarás
Besteac amatuco du	Aquel amará
Guc amatuco degu	Nos otros amaramos
Zuec amatuco dezu	Vos otros amaráis
Besteac amatuco due	Aquellos amarán

*Futuro perfecto*

Nic amatuco nuan	Yo avré amado
Zuc amatuco zenduan	Tú avrás amado
Besteac amatuco zuan	Aquel avrá amado
Guc <sup>35</sup> amatuco genduen	Nos otros avremos amado <sup>36</sup>
Zuec amatuco cenduen	Vos otros avréis amado
Besteac amatuco zuen	Aquellos avrán amado

## [f.7r] TIEMPOS DE SUBYENTIVO

*Tiempo presente*

Nic ama zaran	Yo ame
Zuc ama zazu	Tú ames
Besteac amacen du	Aquel ame
Guc ama zagun	Nos ot[r]os amemos
Zuec ama zazu	Vos otros améis
Besteac ama bezae	Aquellos amen

*Tiempo de pretérito imperfecto*

Nic amazera	Yo amara
Zuc amacera	Tú amaras
Besteac amacera	Aquel amara
Guc amacera	Nos otros amáramos
Zuec amacera	Vos otros amarais
Besteac amazera	Aquellos amaran

<sup>35</sup> Guc] G- letra Z- baten gainean idatzia; -c ez da ondo ikusten, -ec gainean idaztean zirriborro bat geratu delako.

<sup>36</sup> amado] esk. *ando*. Iduri luke azpian *Sido* idatzita zegoela.

*Tiempo de pretérito perfecto*

Nic ama nezala	Yo avía amado
Zuc ama cenzala	Tú avías amado
Besteac ama zezala	Aquel avía amado
Guc ama guenzala	Nos otros avíamos amado
Zuec ama zenzala	Vos otros avíais amado
Besteac ama cezala	Aquellos avían amado

[f.7v] *Tiempo de pretérito plus quam perfecto*

Nic amatu banu	Yo hubiera amado <sup>37</sup>
Zuc amatu bacendu	Tú hubieras amado
Besteac amatu balu	Aquel hubiera amado
Guc amatu baguendu	Nos otros hubéramos amado
Zuec amatu bacendue	Vos otros huberais amado
Besteac amatu balue	Aquellos huberan amado

*Tiempo de futuro perp[er]fecto*

Nic amatuco banuque	Yo amare
Zuc amatuco bacenduque	Tú amares
Besteac amatuco baluque	Aquel amare
Guc a[ma]tuco baguenduque	Nos otros <sup>38</sup> amáremos
Zuec amatuco bacenduque	Vos otros amareis
Besteac amatuco <sup>39</sup> baluque	Aquellos amaren

## MODO IMPERATIVO

*Presente y futuro*

Ama zazu zuc eta amatuco dezu	Ama tú
Ama beza besteac eta amatuco du	Ame aquel
Ama zazu zuec eta amatuco dezu	Amáis vos otros
Ama bezae besteac eta amatuco due	Amen aquellos

<sup>37</sup> Yo hubiera amado] goian lerro oso bat zirriborrotuta.

<sup>38</sup> Nos otros] esk. *nos otros otros*.

<sup>39</sup> amatuco] -*tuco* ez da ondo ikusten, zirriborro batek estaltzen baitu.

[f.8r] MODO INFINITIVO

*Presente e inperp[er]ecto*

Amatu	Amar
-------	------

*Pretérito perp[er]ecto y plus quam perfecto*

Amatu da eta amatu izandu zan	Aver amado
----------------------------------	------------

*Futuro de infinitivo*

Amatu bear du	Aver de amar
---------------	--------------

*Circumloquio segundo*

Ceñac <sup>40</sup> amacera, ero amatu bear izendu zuan	Que amara, o huviera de haver amado
---	--

*Gerundios substantivos*

Amazen duanarena	De amar
Amazen duanarenzat	Para amar
Amacen duanagana	A amar
Amacen duanagatic	Por amar o amando

*Participio de presente e inperp[er]ecto*

Amatu duana eta ama- cen zuana	El que ama o amaba
-----------------------------------	--------------------

*Participio de futuro en -rus*

Amatu bearco luquea- na, ero amatu bear- co zuqueana	El que ha o tiene de amar
--	------------------------------

[f.8v] PASIVA

MODO IND[IC]ATIVO

*Tiempo prese[n]te*

Ni naiz amatua	Yo soi amado
Zu cera amatua	Tú eres amado
Bestea da amatua	Aquel es amado
Gu guera amatuac	Nos otros somos ama- dos

<sup>40</sup> Ceñac] esk. *Cenac*.

Zuec cera amatuac	Vos otros sois amados
Besteac dira amatuac	Aquellos son amados

*Pretérito imperfecto*

Ni nincen amatua	Yo era amado
Zu ciñen amatua	Tú eras amado
Bestea zan <sup>41</sup> amatua	Aquel era amado
Gu guiñen amatuac	Nos otros éramos amados
Zuec ciñen <sup>42</sup> amatuac	Vos otro[s] erais ama- dos
Besteac dira amatuac	Aquellos eran ama- dos

*Pretérito perfecto*

Ni izandu naiç <sup>43</sup> amatua	Yo fui o he sido amado
Zu izendu <sup>44</sup> cera ama- tua <sup>45</sup>	Tú fuiste o has sido amado
Bestea izandu da <sup>46</sup> ama- tua	Aquel fue o ha <sup>47</sup> sido amado
Gu izandu guera ama- tuac	Vos otros <sup>48</sup> fuisteis o havéis sido <sup>49</sup> ama- do <sup>50</sup>
[f.9r] Bes[te]ac izan <sup>51</sup> dira amatuac <sup>52</sup>	Aquellos fueron o hu- vieron sido amado

<sup>41</sup> Bestea zan] -z- letra -c- baten gainean idatzia.

<sup>42</sup> ciñen] esk. *cinen*.

<sup>43</sup> naiç] esk. *naic*.

<sup>44</sup> Zu izendu] goian *Zuizandu* tatxatua.

<sup>45</sup> amatua] ziurrenik geroago idatzia, euskarazko eta gaztelaniazko adizkien artean agertzen den marrak zeharkatzen baitu.

<sup>46</sup> Bestea izandu da] esk. *Besteaizanan-duda*; -i- letra beste baten gainean idatzia, ziurrenik -c-.

<sup>47</sup> ha] esk. *has*.

<sup>48</sup> Erdaraz 1. pertsona plurala eta euskaraz 2. pertsona plurala falta dira, *homoioteleuton* edo berdinetik berdinerako jauzi baten ondorioz segurki.

<sup>49</sup> sido] ezkerreko ertzean, *haueis* aurrean geroago erantsia.

<sup>50</sup> amado] aurrean hitz ulergaitz bat (*anon?*).

<sup>51</sup> izan] esk. *iz<sup>n</sup>*.

<sup>52</sup> amatuac] esk. *amatutuac*.

*Plus quan perfecto*

Ni izen ni[n]zen amatur	Yo avía sido amado
Zu icen ciñen <sup>53</sup> amatur	Tú a[v]ías sido amado
Bestea izen zan <sup>54</sup> amatur	Aquel avía amado
Gu icen guinen amatur	Nos otros avíamo[s] sido amado

[...]

\* \* \*

[f.10r] [*gurutzea*]

## INDICATIVO

*Presente*

Ni naiz	Yo soi
Zu cera	Tú eres
Bestea da	Aquel es
Gu guera <sup>55</sup>	Nos otros somos
Zuec cera	Vos otros sois
Besteac dira	Aquellos <sup>56</sup> son

*Imperfecto*

Ni nincen	Yo era
Zu ciñen	Tú eras <sup>57</sup>
Bestea da	Aquel era
Gu guera	Nos otros éramos <sup>58</sup>
Zuec cera	Vos otros erais <sup>59</sup>
Besteac dira	Aquellos eran <sup>60</sup>

*Perfecto*

Ni izan naiz	Yo fui, o he sido <sup>61</sup>
Zu izan cera	Tú fuiste, o has sido
Bestea izan da	Aquel fue, o ha sido
Gu izan guera	Nos otros fuimo[s], o hemos sido

<sup>53</sup> ciñen] esk. *cinén*.<sup>54</sup> Bestea izen zan] *-i-* letra *-c-* baten gainean idatzia.<sup>55</sup> guera] *-er-* letrak beste zerbaiten gainean idatziak.<sup>56</sup> Aquellos] *-e-* letra geroago tartekatua.<sup>57</sup> eras] *-a-* letra *-e-* baten gainean idatzia.<sup>58</sup> éramos] aurrean *somos* tatxatua.<sup>59</sup> erais] aurrean *sois* tatxatua.<sup>60</sup> eran] aurrean *son* tatxatua.<sup>61</sup> Lerro honen gainean lau lerro tatxatuta.

Zuec izan cera	Vos otros fuisteis, o havéis sido
Besteac izan dira	Aquellos fueron, o han sido

*Plus quan*

Ni izan nintzan	Yo avía sido
Zu izan ciñen	Tú avías sido
Bestea izen zan	Aquel avía <sup>62</sup> sido
Gu icen guñen	Nos otros avíamos sido
Zuec icen ciñan	Vos otros avíais sido
Besteac icen ciran	Aquellos avían sido

[f.10v] *Futuro imperfecto*

Ni icengo nai[z]	Yo seré
Zu icengo cera	Tú serás
Bestea izengo da	Aquel será
Gu icengo <sup>63</sup> guera	Nos otros seramos
Zuec icengo cera <sup>64</sup>	Vos otros seráis
Bestea[c] icengo dira <sup>65</sup>	Aquellos <sup>66</sup> serán

*Futuro perfecto*

Ni icengo nincen	Yo habré amado
Zu icengo ciñen	Tú avrás amado
Bestea icengo zan <sup>67</sup>	Aquel avrá amado
Gu icengo guñen	Nos otros avréis [ <i>sic</i> ] amado
Zuec icengo cera	Vos otros <sup>68</sup> avréis ama- do
Besteac icengo ciran	Aquellos avrán ama- do

## SUBYUNTIVO

*Presente*

Ni icen narin <sup>69</sup>	Yo sea <sup>70</sup>
Zu icen zaite	Tú seas

<sup>62</sup> avía] *-i-* letra beste baten gainean idatzia.<sup>63</sup> icengo] lerroartean erantsia.<sup>64</sup> icengo cera] *-ngoce-* letrak zikinduta daude.<sup>65</sup> dira] *-ir-* letrak *-a-* baten gainean idatziak; hots, *da* → *dira* zuzendu du.<sup>66</sup> aquellos] esk. *aqueellos*.<sup>67</sup> zan] *z-* letra *d-* baten gainean idatzia.<sup>68</sup> Vos otros] *Vos O-* letrak zikinduta daude.<sup>69</sup> narin] *nari-* letrak zikinduta daude.<sup>70</sup> Yo sea] zikinduta.

Bestea icen bidi	Aquel sea
Gu icen gaitean	Nos otros seamos
Zuec icen <sup>71</sup> cera	Vos otros seáis
Besteac icen bite	Aquellos sean

*Imperfecto*

Ni baniç	Yo fuera
Zu baciñe	Tú fueras
Bestea baliz	Aquel fuera
Gu baguiñe	Nos otros fuéramos
Zuec baciñe	Votros fuerais
Besteac balida	Aquellos fueran

*Perpecto*

Ni icen nindilla	Yo aya sido
Zu icen cindecela	Tú ayas sido
Bestea icen didilla	Aquel aya sido
Gu icen gaitecela	Nos otros ayamos sido
Zuec icen zaitecela	Vos otros ayáis sido
Besteac icen dicela	Aquellos ayán sido

[f.11r] *Plusquan*

Ni icen baniz	Yo huviera sido amado
Zu icen baciñe <sup>72</sup>	Tú huvieras sido amado
Bestea icen baliz	Aquel huviera sido amado
Gu icen baguiñe	Nosotros huvieramos sido amado
Zuec icen baciñe	Vos otros huvierais sido amado
Bestea[c] icen balide	Aquellos huvieran sido amado

<sup>71</sup> icen] -n- letra zikinduta dago.

<sup>72</sup> baciñe] esk. *bacine*.

*Futuro perpecto*

Ni icengo baniz	Yo fuere
Zu icengo baciñe <sup>73</sup>	Tú fueres
Bestea icengo baliz	Aquel fuere
Gu icengo baguiñe <sup>74</sup>	Nos otros fuéremos
Zuec icengo baciñe <sup>75</sup>	Vos otros fuereis
Besteac icengo balide	Aquel[1]os fueran <sup>76</sup>

*Imperativo*

Icen zaite zu	Sé tú
Icen bidi bestea	Sea aquel
Icen zaiteç <sup>77</sup> zuec	Sed vos otros
Icen biteç <sup>78</sup> besteac	Sean aquellos

## INFINITIVO

*Presente, e imperfecto*

Icen	Ser
------	-----

*Pretérito, y plus quan perpecto*

Icen da, ero icen zan	Aver sido
-----------------------	-----------

*Futuro de infinitivo*

Bear du icendu	Aver de ser
----------------	-------------

*Circumloquio*

Ceña izatera, ero izendu baliç <sup>79</sup>	Que fuera o hu[y]jera de haver sido
--	-------------------------------------

*Participio de futuro en -rus*

Gauza bear doana icen	Cosa que ha o tiene de ser
-----------------------	----------------------------

<sup>73</sup> baciñe] esk. *bacine*.

<sup>74</sup> baguiñe] esk. *baguine*.

<sup>75</sup> baciñe] esk. *bacine*.

<sup>76</sup> fueran] -a- letra beste baten gainean idatzia (-e-?).

<sup>77</sup> zaiteç] esk. *zaitec*.

<sup>78</sup> biteç] esk. *bitec*.

<sup>79</sup> baliç] esk. *balic*.

## Aipamenak

- De la Cerda, Juan. 2013 [1601]. *El Arte Regia. Nebrija reformado por Juan Luis de la Cerda. Morfología y Sintaxis*. Cáceres: Universidad de Extremadura. [Introducción, edición crítica, traducción y notas de Juan María Gómez Gómez.]
- Esparza, Miguel Ángel & Hans-Josef Niederehe. 1999. *Bibliografía nebrisense: las obras completas del humanista Antonio de Nebrija desde 1481 hasta nuestros días*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Gómez, Ricardo. 2008. «Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: xvii-xviii. mendeak». In X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia. 329-349.
- Martínez Gavilán, M.<sup>a</sup> Dolores. 2008. «Las fuentes del *De institutione grammatica* del P. de la Cerda: racionalismo sanctiano y pedagogía jesuítica en el *Arte* de Nebrija reformado». In M.<sup>a</sup>A. Maquieira Rodríguez & M.<sup>a</sup>D. Martínez Gavilán (arg.), *Gamma-Temas 3: España y Portugal en la tradición gramatical*. León: Universidad de León. 199-238.
- Pereyra Plasencia, Hugo. 1984. «Mita obrajera, idolatría y rebelión en San Juan de Churín (1663)». *Boletín IRA* 13, 209-244.